Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Aurora Manterola Burgaña

Mutriku, Gipuzkoa (1942)



Aurkibidea

Biografia



Mutrikuko moilako etxe batean jaio zen 1942an. Ama ere mutrikuarra zuen; aita, berriz, zumaiarra. Hiru senidetan zaharrena da. Aita ez zuen asko ezagutu, berak hiru urte zituela hil baitzen itsasoan. Amonarekin hazi ziren. Joxe Mari Burgaña kapitaina famatua bere osaba izan zen. Gerrako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Zintak

MUT-078

- **Proiektua**: Mutrikuko gerra zibilaren memoria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ugarte, Arantza - Urriolabeitia, Agurtzane
- **Data**: 2021-04-07
- **Iraupena**: 30 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar
- **Emalea**: Urriolabeitia, Agurtzane

Pasarteak

1. Aita itsasoan hil zen

- **Erref**: MUT-078/002
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:00:58. **Bukatu**: 00:01:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Hiru urte zituela, aita itsasoan hil zen beste 7 marinelekin batera.

2. Amaren bost anaiak gerran

- **Erref**: MUT-078/003
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:03:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Auroraren amak bost anai zituen eta guztiak joan ziren gerrara. Haietako bi Canfranc-eko kartzelan egon ziren preso. Ama bisitan joaten zitzaien, arropa eta jana eramatera. Beste bi anai itsasontziko kapitainak izan ziren.

3. Kuliska itsasontziarekin, Bilbon gerrako minak batzen

- **Erref**: MUT-078/004
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:03:27. **Bukatu**: 00:04:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:
Joxe Mari Burgaña, Auroraren amaren anai nagusiena izan zen. Familiako Kuliska itsasontziaren kapitaina, marinel zela atera zituen ikasketak eta Bilbon egiten zituen azterketak. Gerra garaian, Bilbon ibili zen itsasoan zeuden minak arrantzatu eta desaktibatzen.

4. Joxe Mari Burgaña kapitaina I

- **Erref**: MUT-078/005
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:04:59. **Bukatu**: 00:07:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:
Osaba (Joxe Mari Burgaña), Itxarkundia batailoian ibili zen gerra garaian eta Milloiko emakume batekin ezkondu zen. Gerra aurretik, bi itsasontzi txikirekin (Donibane eta Bigarrena izenekoak) Ameriketara joan zen, Euskadiko gobernuak bidalita. Bertan, petrolio-ontzietan lanean ibili zen.

5. Milloiko San Antolion ermitan gerran izandako ezkontza bakarra

- **Erref**: MUT-078/006
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:07:03. **Bukatu**: 00:10:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:
Joxe Mari Burgaña osaba, Venezuelan bizi arren sarri joaten zen Mutrikura eta bertan berritu egiten zen osasunez eta animoz. Egun batez, Milloiko San Antolin ermitara joan nahi izan zuen, bertan ezkondu zelako. Milloiko tabernako emakume batek ezkontza hura gogoratzen zuela kontatu zien.

6. Petrolio-ontziko gasekin itotako osaba

- **Erref**: MUT-078/008
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:11:15. **Bukatu**: 00:13:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bi osaba Canfranc-en preso egon ziren gerra garaian eta gero Mutrikura bueltatu ziren. Beste anai bat Frantzian bizi izan zen eta itsasoan hil zen. Osaba Hilario itsasontziko kapitaina izan zen. Petrolio-ontzietan lan egiten

zuen eta bere amaren urtebetetze egunean, tankeak ikustera jaitsi eta bertako gasekin ito zen. Berrogei urte zituen.

7. 1500 pezetako isuna semeak gudari izateagatik

- **Erref**: MUT-078/009
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:13:10. **Bukatu**: 00:15:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Auroraren aitonak, bost seme gerrako gudari izateagatik, zortzi egunetan ordaindu behar zuen 1500 pezetako isuna jaso zuen. Antipatriota bezala izendatua izan zen. Dokumentu ofizialak erakusten ditu.

8. Karlistetatik ezkutatzen etxeko ganbaran

- **Erref**: MUT-078/010
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:15:38. **Bukatu**: 00:18:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Etxeko emakumeei ilea moztu zieten gerra garaian. Egunero karlistak etxera joaten ziren, emakumeak kalera ateratzera zigor bezala. Aurora izeneko izeba, ganbaran ezkutatzen zen arrantzako sare eta otarren atzean. Gaixotu eta Eibarko ospitale batera eraman zuten baina 20 urterekin hil zen. Aitona ere, semeak abertzaleak zirelako 1500 pezetako isuna ordaindu eta sei hilabetetara hil zen.

9. Umiliazioak gerra galdu zutenei

- **Erref**: MUT-078/011
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:18:04. **Bukatu**: 00:19:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Gerra garaian, abertzaleak izateagatik jasandako zigorrak eta umiliazioak. Karlistak etxera joaten ziren bila.

10. Joxe Mari Burgaña kapitaina II

- **Erref**: MUT-078/013
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:20:01. **Bukatu**: 00:22:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Osaba Joxe Mari, Venezuelan itsasoan lanean egon zen Jose Antonio Agirre lehendakariaren mandatuz. Bertako eskola batean ozeanografiako irakasle ere izan zen. Erretiratu zenean, lurmutur bateri Cabo Burgaña izena jarri zioten. Urtero Mutrikura bueltatzen zen.

11. Joxe Mari Burgaña kapitainaren heriotza

- **Erref**: MUT-078/017
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:25:16. **Bukatu**: 00:27:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Osaba Joxe Mari Burgaña oso pozik jartzen zen Mutrikura bueltatzen zen bakoitzean. Eskutitz batean, Aurorari Mutrikura noiz joango zen idatzi zion eta eskutitza botatzera joan zenean, bihotzekoak jota hil zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-14

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com